

TESTUA:

ZELAI BAT ANATOT-EN

Baruk-ek, Jeremiasen idazkariak, harrituta begiraten zion ikusten ari zenari: profeta Anatoteko lurraldeko zelai baten erosketa kontratua izenpetzen ari zen. Ezin zuen sinetsi ikusten ari zena: zelai bat erosi tropa kaldearrek setiatuta zeukatelako, Jerusalem erortzear zegoela, mundu guztia etxeak eta lurrak saldu nahian zebilenean, Babiloniarako erbestea begi bistan zegoelako. Nola ez zion aholku eskatu erabaki absurdu hura hartu aurretik? Ez al zen konturatzen Juda hutsik geldituko zela eta itzulera ezinezkoa izango zela?

Zeremonia bukatu zenean, Jeremiasengana hurbildu zen, galderak eta erantzukiak egiteko, baina ez zion ezer esan, hain ikusi zuen lur jota. Geldituta zegoen guardiako patioan haren ondoan eserita, entzun egin zion, isilik: bere borondatearen aurka egin zuen keinu hura; beste behin Jaunak liluratu egin zuen, eta berak gogo onez hartu zuen liluratze hura. Alfer-alferrik esan zion bere buruari mordo bat aldiz: “Ez dut gehiago Harengan pentsatuko, ez dut Haren Hitza entzungo” Hitz hura, ordea, hezurretan gordetako su irense baten antzera sentitzen zuen bere barruan, eta desobeditu nahi bazuen ere, ezin zuen. Horrelakoa izan zen bere bizitza guztia: protestatik onarpenera zeraman bide luze bat, baina orain zaharkituegia eta nekatuegia zegoen Jaunak agintzen zionari aurka egiteko.

Behin eta berriz saiatu zen Jaunaren Hitzak nazioen profeta izatera bidali eta berak aurre egin zionetik:

-Gazteegia naiz, ez nago prestatuta, ez naiz gauza izango...

Alferrik izan zen.

-Ni zurekin egongo naiz – erantzun zion Jaunak eta, gero, almendrondo adar bat erakutsi zion ziurtatzeko:

-Udaberria da eta ez zara zu, gizontto dardarati hori, almendrondoak loretan jartzen dituen. Eta ni neu izango naiz, eta ez zu, nire Hitza betearaziko duena...

Ondoren urte askotako liskarrak etorri ziren erregearekin eta kaldearren aurka gerra egin nahi zutenekin; eta Judaren kontra egin behar izan zituen iragarpenak hain ziren mehatxuzkoak non etsai baten ahotik atereak ematen baitzuten. Eta orain, hainbesteko eztabaida artean hainbestetan erbesterako prestatu behar zutela esan eta gero, Jaunak zelai bat erosteko keinu guztiz ez-ohikoa eskatzen zion, argibide bakar honekin:

-Oraindik ere etxeak, zelaiak eta baratzeak erosiko dira lur honetan.

Etorkizuneko “oraindik...” hartan zeukan konfiantza absolutua berresteko erosi zuen zelai hura. Garbi utzi nahi zuen ez zela oraingo larrimina izan bere sinadura gertakarien gainean jartzera bultzatu zuena.

Hitz hark gurutzatu egin zuen Baruken arima ere: “oraindik...” Eta jakin zuen Jainkoak bere herriaren bihotzean erein nahi zuen esperantza osoa hitz xume horretan gordeta zegoela. Hitzak taupadatu egiten zuen, hazia bezalaxe, zelaiaren erosketa-kontratuak gordetzen zituen buztinezko pitxerrear.

GALDERAK:


Historia hau nire historia da. Jeremiasi bezalaxe, fedea, aldian behin, txundituta uzten gaituzten keinu ez-ohiko eta ulergaitzak eskatzen dizkigu. Jaunaren aurrean jartzen dut nire bizitza, eta adorea eskatzen diot, ordua datorkeenean, logikatik haratago doazen keinuak eskatzen dizkigunerako.

Partekatu egiten dugu gure fedea. Gogoratu egiten ditugu gaur egun Ebanjelioak jarrera kontrakulturalak hartzera bultzatzen dituen pertsonak eta taldeak. Bide zehatzak aztertzen ditugu munduak mesprezagarri eta etorkizunik gabeko gisa ikusten dituztenekin bat egiteko.

BERRI ONA:

Jeremias 32, 1-15:

Sedekiasen erregealdiko hamargarren urtean, Nabukodonosoren erregealdiko hemezortzigarrenean, Jaunak bere mezua adierazi zion Jeremiasi. Garai hartan, Jerusalem setiatzen ari zen Babiloniako erregearen gudarostea; Jeremias profeta atxilotua zegoen Judako erregearen jauregiko kartzela-atarian. Sedekias erregeak giltzapean sartua zuen, hark iragarritako mezu hau zela eta: «Hau dio Jaunak: Jerusalem Babiloniako erregearen esku utziko dut eta honek konkistatu egingo du. Judako errege Sedekias bera ere ez da libratuko babiloniarren eskuetatik, hauen erregearen esku geldituko da: harekin aurrez aurre topo egin beharko du. Babiloniarra eramango du Sedekias eta hantxe gelditu beharko du nik haren alde esku hartu arte. Babiloniarren aurka borrokan jarraitzen baduzue, ez duzue ezer onik aterako. Nik, Jaunak, esana». Hona Jeremiasen kontakizuna. Jaunak esan zidan: «Hanamel, zeure osaba Xalumen semea, etorriko zaizu eskubide hau egitera: “Eros iezadazu Anatoten daukadan alorra; zeuri dagokizu horretarako eskubidea, ahaidetik hurbilekoena zaitudanez”». Jaunak iragarri bezala, Hanamel etorri zitzaidan presondegiko atarira, eta esan zidan: «Eros iezadazu Anatoten, Benjaminen lurraldean, daukadan alorra; zurea da erosteko eskubidea, ahaidetik hurbilekoena zaitudanez». Garbi jakin nuen orduan Jaunak hitz egin zidala. Horrela, erosi nion Anatoteko alorra neure lehengusu Hanameli. Zilarrezko hamazazpi txanpon ordaindu nizkion. Agiria idatzi, lekukoen aurrean zigilatu eta zilarra pisatu nuen. Gero, lege-baldintza guztiak betez, zigilaturiko agiria eta honen kopia irekia harturik, neure lehengusu Hanamelen aurrean eta agiria izenpetu zuten lekukoen eta kartzela-atarian suertatu ziren judutarren aurrean, Neriasen seme eta Mahseiasen biloba Baruki eman nizkion. Agindu hau eman nion guztien aurrean Baruki: «Jaun ahalguztidunak, Israelen Jainkoak, dio: Hartu bi agiriok, zigilatua eta irekia, eta sartu buztinezko pitxer batean, luzaro iraun dezaten. Izan ere, honela dio Jaun ahalguztidunak, Israelen Jainkoak: Oraindik ere erosiko dira etxe, alor eta mahastiak herrialde honetan».



OTOITZA: 136 (135). SALMOA

Eskerrak eman Jaunari, ona baita,
haren maitasuna betikoa baita.
Eskerrak eman jainkoen Jainkoari,
haren maitasuna betikoa baita.
Eskerrak eman jaunen Jaunari,
haren maitasuna betikoa baita.

Bera bakarrik egintza miragarrien egile,
haren maitasuna betikoa baita.
Jakinduriaz egin du zerua,
haren maitasuna betikoa baita.
Uren gainean tinko ezarri lurra,
haren maitasuna betikoa baita.
Argizagi handiak egin ditu,
haren maitasuna betikoa baita;
eguzkia, egunaren gain jartzeko,
haren maitasuna betikoa baita;
ilargia eta izarrak, gauaren gain jartzeko,
haren maitasuna betikoa baita.

Israel Egiptotik irtenarazi zuen,
haren maitasuna betikoa baita;
ahalmen handiz, esku indartsuz,
haren maitasuna betikoa baita.
Itsaso Gorria erdibi egin zuen,
haren maitasuna betikoa baita;
eta Israel herria erditik pasarazi,
haren maitasuna betikoa baita.

Basamortuan zehar gidatu zuen bere herria,
haren maitasuna betikoa baita.
Agintzaria lurraldea bere herriari eman zion,
haren maitasuna betikoa baita;
bere zerbitzari Israeli eman zion ondare,
haren maitasuna betikoa baita.
Oroitu zen gutaz gure erorialdian,
haren maitasuna betikoa baita;
eta arriskuetatik gintuen askatu,
haren maitasuna betikoa baita.
Bizidun guztiak janaritzen ditu,
haren maitasuna betikoa baita.
Eskerrak eman zeruko Jainkoari,
haren maitasuna betikoa baita.

Pequeños consejos para *empezar un nuevo curso*

$\pi^2 + GO^2 = CM$

Pasión ilusión² + Ganas optimismo² = Curso mágico

No *Tengas miedo a equivocarte* | *Ante Todo* **SÉ FELIZ**

Disfruta del Camino **SONRÍE** | *Si no llegas, aprende a decir* **No**

Reinéntate | **SIÉNTETE ORGULLOSO** *de lo que haces y cómo lo haces*

No te olvides de ti. **CUÍDATE** | *Cuida* **A TUS COMPAÑEROS**

PÁSALO BIEN *EN TU DÍA A DÍA* | *Utiliza las palabras mágicas:* **PERDÓN, GRACIAS Y POR FAVOR**

Lánzate *a la piscina,* **sal de tu Zona de confort** | *JUZGA poco y PREGUNTA mucho* | **TODOS COMETEMOS Errores,** **TENLO CLARO**

Mantén **LA CABEZA ORDENADA** **PARA QUE QUEPAN más cosas** | *Trunce MENOS el ceño*

elblogdemanuvelasco.blogspot.com

EL BLOG DE MANU VELASCO